

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Sanz Lehendakaria estatura iritsi den eta % 100 elektrikoa den lehen autobusean ibili da

Ibilgailua Unitec Europa enpresak eskuratu du Txinan eta Nafarroan egitea aurreikusi den ereduaren erreferentzia izango da

Miércoles, 11 de mayo de 2011

Miguel Sanz Nafarroako Lehendakaria % 100 elektrikoa den lehen autobusa aurkezteko ekitaldian izan da. Txinatik ekarri dute eta mota horretako ibilgailuak egiteko Tafallan jarriko duten fabrikarako erreferentzia izango da. Hala adostu zuten joan den irailean Shanghai Foru Erkidegoak, Foton Txinako enpresa multinazionalak (munduan merkataritzako erabilera duten ibilgailuen lehen ekoizlea) eta Espainiako Inceis enpresak.

Ekitaldian izan dira Elma Sáiz Delgado Nafarroako Gobernuko ordezkaria, Álvaro Miranda Simavilla Foru Gobernuko bigarren presidenteordea eta Ekonomia kontseilaria, José María Roig Aldasoro Berrikuntza, Enpresa eta Lan kontseilaria, Laura Alba Cuadrado Herri Lan kontseilaria eta Mao Ching Fu Lee Unitec Europaren jabea eta proiektuaren enpresa sustatzailearen ordezkaria. Azken horrek autobus elektrikoa eskuratu du hirigunean probatzeko eta biztanleei ibilgailuaren abantailak zeintzuk diren erakusteko.

Aurkezpenean, besteak beste, hauek ere izan dira: Cristina Sota Pernaut Tafallako alkatea, Javier Torrens Alzu Iruñerriko Mankomunitateko presidentea, Begoña Urien Angulo Nafarroako Gobernuko Enpresen arloko zuzendari nagusia, Susana Labiano Bastero Garraioen arloko zuzendari nagusia eta Javier Díaz Erdialdeko Enpresaburuen Elkarteko presidentea.

Ibilgailua Tafallako Udaletxeko plazan aurkeztu dute. Han, agintariak



Sanz Lehendakaria, beste agintari batzuen artean, gaur Tafallan aurkeztu den autobusaren aurrean



Instituzioetako ordezkariak autobusean egin duten ibilbidearen hasieran

autobusa eta haren ezaugarriak ikusi ahal izan dituzte; ondoren, herritik zehar ibilbidea egin dute autobusean. Autobusaren modelo BJ6123EVCA da, zuria eta Foton Motor enpresa multinazionalak Pekinen (Txina) duen fabrikari egin dute. Ibilgailua joan den martxoaren 11n atera zen Txinatik eta itsasontziz eraman zuten Bartzelonaraino; handik Nafarroara heldu berria da.

Foton Motor enpresa multinazionalak gaur egun Txinan merkaturatzen duen eredu bat da eta gehienbat Asiako merkaturatzen ditu halakoak. Autobusa hirian erabiltzeko da, 62 lagun joan daitezke (27 eserita eta 36 zutik), adinekoei autobusera igotzea eta jaistea errazteko zoru baxuko plataforma dauka eta elbarrituek erabiltzeko modukoa da.

Foton Motor eta Inceisa enpresek adostutakoaren arabera, Nafarroako Gobernu Foru Erkidegoan egingo den autobus mota estatuan eta Europar homologatzeko prozesuetan elkarlanean arituko da hasieran, legez ezarritako laguntzen bidez industrian ezartzeko proiektua babestuko du eta ibilgailuak egiteko behar diren osagaien hornitzaileak izan daitezkeenekin harremanak erraztuko ditu. Hiru aldeek batera lan egiteko konpromisoa hartu zuten Nafarroan ibilgailu elektrikoak bultzatzeko proiektu hori gauzatzeko aldera; baita ibilgailuok eta horien osagaiak ekoiztu eta estatuan eta nazioartean merkaturatzeko ere.

Hitzarmen hori VEN proiektuarekin (Nafarroan ibilgailu elektrikoak ezartzeko) dago lotuta. Proiektu hori Foru Gobernuak sustatzen du ibilgailu elektrikoaren sektoreko atzerriko enpresak Nafarroan jartzea bultzatzeko, Sodena sozietate publikoak garatzen duen jarduerarekin elkarlanean.

Galería de fotos



Autobusa Tafallako Udaletxearen plazan egon da ikusgai